

Balardipeco Erleak, tradizioa iraultzera





AURKIBIDEA

Iritzia Oihana Iguaran **3**

Elkarrizketa Sagra Jauregiberri,
patchwork-ari harilkatuta **4-7**

Asteko Gaia Balerdipeko Erleak,
ofizioa eguneratuz **10-18**

Wattaria Imanol Landa Medrano **19**

Iritzia Imanol Artola 'felix' **20**

Iritzia Maddi Dorronsoro **21**

Agenda **23-25**

Agenda Mulanbo, bi hamarkada
festa giroa musikatuz **26-29**



Azaleko irudia
Sutu produkzioak

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
lana euskaraz

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altoz,
Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza,
Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde,
Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza,
Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





**OIHANA
IGUARAN
BARANDIARAN**
IKERLARIA ETA
BERTSOLARIA

Jabetzaren kultura

Duela gutxi jabetu naiz jabetzaren garrantzia noraino heltzen den: barruraino. Eta horregatik, diskurtsoan posesioaren kontzeptua lausotzen eta partekatzen ahalegindu arren, jabetzaren praktika transmititzen dut egunero. Eta ez, ez naiz jabetzaz ari.

Bitxia egin zait ohartzea, hizkuntza gureganatzen goazenean txertatzen dugun lehen atzizkia posesioa bera izatea (eta hezitzaileek baieztatu didate ohikoena izaten dela). Niniak «ni» esaten ikasi aurretik adierazten du «nirea», bere izenari «-na» erantsiz bada ere, eskuarekin bularra (edo zilborra) kolpatuz. Hurrengo galdera litzateke, zergatik den ohikoena, nondik jasotzen duten horren garrantzia edo lehenetasuna.

Ez daukagu sorbalden atzera begiratu beharrik; beste behin, (gure) txikiak ispilu zaizkigu. Eta jabetzen naiz zenbat bider azaldu diodan (gure) alabari berea ez den zerbait ezin duela besterik gabe hartu eta eraman; nola gogoratu diodan jabeari baimena eskatu behar diola, nola azpimarratu diodan besteena errespetatu behar duela; eta kontrara, nola eskatu diodan bereak zirenak parteka eta aska zitzan.

Eta okerragoa dena, jabetzen naiz arrazoi gisa ez diodala jartzen beste pertsona horrek behar duenik,

edo erabiltzen ari denik... ez. Arrazoi gisa irteten zait jabetza bera: «Utzi hori, ez dun gurea», «Ekarri mugikor hori, aitatzorena dun»; esan beharrean: «Nor bait ariko dun horrekin jolasean» edo «Puskatu egin dezaken eta behar din».

«Bi urteko txiki baten begiradatik hobeto ulertu nuen osasun sailburuaren hitzartzea, murrizketak eta zerbitzu publikoen desegite planifikatua 'kultura aldaketa' gisa izendatzen»

Jabetzaren kulturari hazi gaituzte, kulturaren jabetza gako jota. Eta horixe da ondorengoei hitzez ez baina jarrerari helarazten dieguna. Bi urteko txiki baten begiradatik hobeto ulertu nuen osasun sailburuaren hitzartzea, murrizketak eta zerbitzu publikoen desegite planifikatua «kultura aldaketa» gisa izendatzen. Niniaren talaiatik ere ulertzen da hori osasuna ondasun gisa tratatzea dela, eta ez ogasun gisa. (Des)jabetze kultura baten aurrean gaude.



«Denbora da, batez ere, lan hauetako bakoitzari dedikatzen diozuna»

SAGRA JAUREGIBERRI UGARTEMENDIA
QUILTERRA

Patchwork eskolak ematen ditu batean eta bestean eta eskulan teknika hau erabiliz lan ugari ditu eginak; azkenaldian, telazko liburuak landu izan ditu eta bi osatu ditu Plazida Otaño liburutegiarentzat.

Jon Miranda Zizurkil

Sagra Jauregiberri Ugartemendia (Zizurkil, 1968) 2006an hasi zen Zizurkilen patchwork eskolak ematen eta ordudanik herri gehiagotan dabil eskulan honen inguruko afizioa zabaltzen.

Noiz hasi zinen patchwork lanak egiten?

Duela 21-22 urte hasi nintzen, nire amak bultzatuta.

Eskulan honetara katigatu nintzen eta ordudanik horretan jarraitzen dut.

Amarengandik jasotakoaz gain beste inon jaso duzu formazioa?

Hasieran amarekin hasi nintzen, baina hainbeste gus-tatu zitzaidanez, nire gisara mugitu nintzen eta toki

askotara joan izan naiz ikastera, besteak beste, Barzelonara edota Madrilera. Hemen Euskal Herrian ez dago aukera handirik.

Patchworkaren tradizioa nondik dator?

Ezagunena AEBko patchworka da. Filmetan arreta jarritz gero ohe estalkiak eta tapizak asko ikusten dira. Ezagunena hori da, baina munduko beste herrialde askotan ere egiten da eta gainera oso modu ezberdinetara. Japonian, adibidez, kolore apaleko telak erabili eta xehetasunez betetako lanak egiten dituzte. Hawaiiin badago beste estilo bat oso koloretsua eta han animalien formekin osatzen dituzte euren lanak. Europan, gehienbat, amerikar estiloa lantzen da.

Zuk teknika ezberdinak landu izan dituzu?

Bai. Niri asko gustatzen zait gauza ezberdinak probatzea, eta gustatuz gero, saiatzen naiz teknika horiek lantzen.

Nola azalduko zenuke hitz gutxitan zer den patchworka?

Ingeleseko hitza da. *Patch* hitzak tela puska edo oihalkia esan nahi du eta *work* hitzak, berriz, lana. Beraz, tela puska ezberdinak elkartuz edo josiz sortzen den lana da patchworka. Lan hori, izan daiteke edo ohe gaineko bat, edo tapiz bat, edo poltsa bat, edo nezeser bat. Ia nahi duzun guztia egin dezakezu.

Zuk denetarik landu izan duzu?

Bai egia esan bai. Oparitzeko errekurtsu polita iruditzen zait. Ohe estalki bat egiteko denbora asko behar izaten da eta hori opari berezia da. Baina nik bestelako lan asko ere egin izan ditut detaile gisa emateko: poltsak, diru-zorroak, nezeserrak, tapizak...

Zein prozesu daramazu lan hauek egiteko?

Esan beharra daukat, esate baterako, ohe estalki bat egiteak uste baino lan gehiago daukala. Emaizta

ikusten du jendeak, baina atzetik logistika lan handia dago. Aurrena pentsatu behar duzu zer egin nahi duzun. Nolako ohe estalkia egin nahi duzun irudikatu behar duzu edo aldizkari, liburu edo Internetetik ateratako irudietan inspiratu. Patroiak atera behar dira horretarako, puska txikiz osatutako lana denez, behar da horrelako gida bat eta askotan aldizkarietan topatzen dituzu horrelakoak. Bestela zuk zeuk sortu behar duzu patroia. Oihalak erosi behar dira ondoren. Bereziak izaten dira, normalean kotoizkoak. Eta gero hasten da josteko prozesua.



Makinaz edo eskuz?

Nik bi moduetara egiten dut. Eskuz josten hasi nintzen eta gehiago gustatzen zait, horrela ikasi nuen eta horrela jarraitzen dut. Nahiago dut. Makinaz ere egiten dut lan. Batez ere, poltsak eta horrelako piezak muntatu behar ditudanean erabiltzen dut makina edo ohe estalkiei azkeneko ukitua eman behar zaientean.

Non eskuratzen dituzu oihalak?

Hemen inguruan badauzkagu denda pare bat eta saiatzen naiz gertuko saltokietan erosten. Bestela Interneten eskuratzen ditut, denda ezagutzen badut, eta fidagarria baldin bazait, batez ere. Dezentetan jo-

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

aten naiz Bartzelonara oihalak eskuratzera eta Avile-
sen ere badago denda zoragarri bat. Mugitzen naiz
batera eta bestera. Azokak egiten dira urtean behin
estatu mailan eta haietara ere joaten naiz. Ez dira
merke-merkeak izaten oihal hauek.

Ohe estalkia bigungarria izaten da. Hori nola lor- tzen da?

Goiko zatia josi ondoren, azpiko beste oihalarri lotu
behar diozu eta tartean betegarria jarri behar diozu.
Normalean, kotoizkoa izaten da. Hiru geruza horiek
elkartu eta josi egin behar dituzu bata bestearekin,
efektu bigungarri hori lortu ahal izateko.

'Quilt' esaten zaio behin batuta sortzen den pieza horri.

Bai. Eta horregatik quilterrak deitzen gara patchwork
lanetan aritzen garenak.

Prozesuaren zein zatirekin gozatzen duzu gehien?

Hasierakoarekin. Zer egin eta nola egin pentsatzen
gozatzen dut gehien eta telak aukeratzen ere bai.
Josten ere ondo pasatzen dut, eta niretzat lasaigarria
da oso. Baina kitzikatzeko nauena, sortze prozesu hori
izaten da. Buruhauste horiek maite ditut.

Erronkak gustuko dituzu?

Bai. Zailtasunean beste koska bat gora egiten duda-
nean ondo pasatzen dut. Bi urte eta erdi eman izan
dut ohe estalki bat egiten. Lan oso konplexuak izaten
dira, xehetasun handikoak eta ordu asko eskatzen di-
tuztenak.



Erronka bezala hartu dituzu telazko liburuak ere?

Egia esan Interneten ikusi nuen lehen aldiz horrelako
bat eta oso ideia polita iruditu zitzaidan. Begira hasi
nintzen eta entsegu bat edo beste egin nuen. Inguru-
koei gustatu zitzairen. Geroz eta jende gehiagok ikusi,
orduan eta gehiagok eskatzen didate telazko liburua
egitea. Haur batentzat oso opari polita da, didaktikoa
ere bada eta gauzak ikasteko aukera ematen dutela
iruditzen zait.

Plazida Otaño liburutegiarentzat bi egin dituzu.



- I. URTEURRENA - Joxemanuel Izagirre Mujika

"Tati"

2021eko ekainaren 15ean hil zen, 73 urte zituela.

- Goian bego -

Erreza izan zen maitatzea
ezinezkoa ordea zu ahaztea
beti gurekin izango zara.

Hire sendia

Bere oroimenean urteurrenako meza ospatuko da IGANDEAN,
goizeko HAMAIKETAN, Ibarrako SAN BARTOLOME parrokan.

IBARRA, 2022ko ekainaren 17an.



hilberriak · urteurrenak · eskertzak

Txikia: 110€ · Atarikideentzat: 55€

Handia: 160€ · Atarikideentzat: 80€

Eskertza: 60€ · Atarikideentzat: 30€

ataria@ataria.eus · Tel: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu.

Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.



Jauregi Ibarri 'Plazidaren liburua' eskuan duela. J.M.

Liburutegia zabaldu zenean egin nuen bat, eta orain, berriki, seigarren urteurrenaren harira Plazida Otañoren ingurukoa egin dut. Hasierako entsegu horiek egin nituenean Arantxa Zabala liburuzainak ikusi zituen eta liburutegirako bat eskatu zidan, 2016an. Bigarren hau, landuagoa dela esango nuke, Plazida Otañoren inguruan atera duten liburu ilustratua oinarri hartu dut eta jolas ezberdinak proposatu ditut bertan: lokarriak lotzen ikasteko, zenbatzen ikasteko, tamainak bereizten ikasteko... Enkargua zeinek egin, horren arabera liburua pertsonalizatzen saiatzen naiz. Kasu honetan, Melo pertsonaia ere sartu dut eta gertuko erreferentziak jaso ditut: Zubimusu zubia, Plazida jaio zeneko Errekalde baserria... Haurrek liburuarekin jostatzeko aukera dute liburutegian. Esan didatenez arrakasta handia du.

Enkarguz egiten duzu lan?

Bai. Telazko liburuen kasuan bai. Inguruko jendeak eskatu izan dizkit. Zaila da hala ere salneurria jartzea horrelako lan bati, atzetik lan handia daukalako, ordu asko pasatzen ditudalako liburuak pentsatu eta gero egiten.

Baloratzen al du jendeak eskulan hauen atzean dagoen ahalegina?


Eskulan zaleak direnek bai. Haiek konturatzen dira zenbateko lana dagoen pieza bakoitzaren atzean. Ezin da dena dirutan neurtu, denbora da batez ere lan hauetako bakoitzari dedikatzen diozuna. Gero materiala dago, oihalak eskuratu behar dira, horiek eskuratzeko batetik bestera ibili beharra dago... Horregatik, beti diot, lan hauek baloratuko dituela dakidan pertsona bati oparituko dizkiodala, bestela nahiago dut zerbait erosi eta hori oparitzea.

Erakutsi izan al dituzu zure lanak?

Bai. Hemen Zizurkilen erakusketa gelan jarri izan dut erakusketa. Astigarragan quilter batzuk elkartzen gara talde batean eta gure lanak erakusteko bi urtez behin egin izan ditugu erakusketak. Espainiako quilter elkarteak duela hamar bat urte Donostian egin zuen urteroko topaketa eta han ere nire lanak erakutsi eta bi sari irabazi nituen. Bata publikoarena eta bestea bigarren sari nagusia.

Irakasle bezala zabilta.

Bai, 2006an hasi nintzen Zizurkilen, ordudunik herri ezberdinetan nabil: Hernanin, Oiartzunen, Errenterian, Donostian... Inoiz izan dut gizonezkoren bat, baina gehienbat emakumeak dira eskulan hauetara animatzen direnak.



sariduna



Atarikideentzat **irteera** bat dugu

LEAKTIBAI Coasteering

irteera

Lagun batentzako tokia

• Arantxa Tolosa (Tolosa)

Irteera eguna: 2022ko uztailaren 9a

Kostako haitezeta zehar ibilaldia (Gutxieneko adina: 12 urte)

ATARIA jarriko da harremanetan

ataria

Iragarri zurea gurean

* Atarikideentzat eskaintza bereziak

* Itzulpena eta diseinua doan

publi@ataria.eus / 661 678 818



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)

TEL: 943 65 29 64

ISASTEGI.COM



Elkar lotuta doaz enplegua eta inklusioa



Tolosaldea Lab eskualdeko eragile sozial-kolektiboak enplegarritasunaren eta inklusibitatearen inguruan hausnartzeko eta proiektu kolaboratiboak garatzeko biltzen dituen foroa da, Tolosaldea Garatzenek dinamizatzen duena.

Bere helburu nagusia laneratzeko zailtasunak dituzten pertsona zaugarriak, emakumeak eta gizarte bazterkerian daudenak bereziki, lan merkatuan sartzea da, horretarako formazio-ekintzak sustatuz.

Beste egitasmo batzuen artean, Elkar-Ekin ize-neko proiektua garatu dute ikasturte honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Elkarrekin Lanean laguntza-programari esker. Modu horretara, bi arlotako profesionaltasun ziurtagiriak eskuratzeko martxora bitarteko prestakuntza teknikoa eta enpresetan praktikak egiteko aukera eskaini da.

Garapen agentziaz gain, Fundacion Empleak, Peñascal Kooperatibak, desgaitasuna duten pertsonekin lan egiten duen KateaLegaia enpresak eta etorkin magrebtarren integrazioa helburu duen Jatorkin elkarteak gauzatu dute, elkarlanean.

Orotara 23 pertsona izan dira proiektuaren onuradun: zortzi pertsonak hezkuntza ez arautuko irakasle izateko formazioa jaso dute; eta beste 15 pertsonak biltegi eta logistika lanetarako ziurtagiria eskuratu dute.

Foroa hurrengo ikasturtean pentsatzen jarria da dagoeneko, eta enplegarritasuna eta inklusioa modu bateratuan landuko dituen hurrengo proiektuaren oinarriak finkatzen hasiak dira. Ikasturte berriarekin batera emango dira xehetasun guztiak.

Bitarte horretan, aukera gehiagoren berri jakin nahiko lukeenak, Enplegu Sailarekin harremanetan jartzeko aukera izango du, lan@tolosaldea.eus helbidera idatziz, 943 654 501 telefonora deituz edo Lehiberri Zentrora gerturatuz.



«Azpitik nahastu eta beste buelta bat eman nahi diogu erlezaintzari»

INAXIO ARIN SUBIJANA ETA MATTIN JAUREGI ETXEBERRIA
ERLEZAINAK

Mattin Jauregi ikaztegieta eta Inaxio Arin tolosarra erlezaintzatik bizitzeko apustua egin dute; hori dute helburu eta amets. Tradiziotik harago eraman nahi dute erlezaintza, eta Balerdipeco Erleak proiektua sortu dute. Bedaion dituzten erlauntzez gain Nafarroan ere badituzte.

Eneritz Maiz Etxarri Ikaztegieta / Tolosa

Mattin Jauregi Etxeberria (Ikaztegieta, 1998) eta Inaxio Arin Subijana (Tolosa, 1998) erlezaintzatik bizitzeko helburuarekin ari dira lanean. Dagoeneko Balerdipeco Erleak izenean produktu ezberdinak ekoizten dituzte. Oraindik ez dute produkzio oso handia, eta ekoizten dutena Tolosaldea mailan saltzen dute: «Polita da gure produktu guztiak eskualde mailan saldu ahal izatea, baina bestetik zabaltzeko ere egin nahiko genuke». Erlezaintza aintzat hartzea eskatzen dute.

Balerdipeco Erleak proiektua osatu duzue bion artean. Zer da?

Mattin Jauregi. Balerdipeco proiektuarekin duela bost bat urte hasi nintzen martxan. Kapritxo, erlauntza batzuk jarri nituen. Erlezain munduak beti erakarri izan nau, eta probatzeagatik jarri nituen. Ideia handirik ez nuen, baina martxan jarri nituen. Lehen urtean ez nuen suerte handirik izan, eta erle guztiak galdu nituen. Gustatu egiten zitzaidanez, berriz ausartu nintzen jartzera, eta geroz eta gehiago jartzen joan nintzen. Laguntza izaten nuen, eta Inaxio betidanik izan dut laguna eta niri laguntzen hasi zen. Hortik harpatu zuen bera ere erlezaintzak.

Inaxio Arin. Mattin Bidaion hasi zen, Balerdi mendia-
ren azpian. Eta Balerdi beti han ikusten dugunez, eta Balerdipeco erleak direnez, izen hori jarri genion.

Zein harreman izan duzue erlezaintzarekin?

Jauregi. Nire kasuan ez nuen inor ezagutzen erlezaintzan. Ezagutzen ez nuen ofizioa zen. Behin Hazi fundazioaren ikastaro bat ikusi nuen, eta egitera animatu nintzen. Gustatu egin zitzaidan. Dena berria zen niretzat, eta orduan ez nuen ezta ezta hartzen ere. Eta orain beste salto bat izan da honetan lanean aritzea.

Arin. Nire kasuan harremana zero izan da. Mattinekin mendian ibiltzen hasi nintzen, eta berak erle gehiago jarri zituen pixkanaka laguntzera joaten hasi nintzen, eta nik galdera asko egiten nizkion. Dena galdeztzen nion, eta bere kontuekin liluratu egin ninduen.

Azkenean gustatu egin zitzaidan, eta hementxe gaudela.

Ikasketarik edo egin duzue?

Jauregi. Ez dakit badagoen ikasketarik erlezaintza definituko duenik. Azkenean denak ikastaro motzak dira; udaberriko erlezaintza, udazkenekoa, erregina hazkuntza edo kosmetika... Ikasketarik ez dago, beraz nola ikasten duzu? Erlezaintza munduan urteak daramatzan jendeari galdetuz eta probak eginez. Aldiro-aldiri esperimendu berriak egin eta horietatik zerbait positiboa ateratzen baduzu, ondo; eta horrela ez bada, beste saiakera bat egin behar. Ikasteko aukera gutxi daude.

Erlezain lanetan hasiko zinetela esatean zein izan dira gertukoengandik jasotako erantzunak?

Arin. Arraro samarra izan da denentzako. Zer egin behar genuen, eta harrituta geratzen ziren. Erlezaintzan, ezta ezagutzen da produktu bezala, baina erlezainaren lana beti ezkutuan geratu izan da. Bideo bidez-eta ikusten joan diren heinean zer egi-



ten dugun, beste modu batera hartu dute.

Jauregi. Nire kasua antzekoa da. Erleetara lanera noala esatean, erleek bakarrik eginguten dutela lan esan izan didate. Eztia agian bakarrik egingo dute, baina hor atzean dagoen lan guztia ez da ikusten. Ordu asko dira; ematen du erlezainok ez dugula lanik, baina astelehenetik igandera prestatu egin behar dira lanak. Denboraldian lan asko izaten da, eta hori jendeak ikustea zaila da. Ez da beraien aurrean egiten duzun lana. Eztia bakarrik ikusten dute.

Non dituzue kokatuta erlauntzak?

Arin. Esan bezala, Bedaion Balerdi azpian ditugu, eta zertxobait gehiago zabaldua, Nafarroan, han erlauntza gehiago dauzkagu. Arbizun, eta erromero eztia ateratzen, Tafalla inguruan.

Eta zein dira bada erlezain batek egin behar dituen ezkutuko lan horiek?

Jauregi. Eguraldiak asko baldintzatzen du gure lana. Eguraldi ona egiten duenean erleak lanean daude, baina erleek lana egin ahal izateko, guk lana aurreratu edo lagundu egin behar diegu. Aurreprestaketa batzuk egin beharra dauzkagu. Erlategiko lanak ere eguraldi onarekin egin beharra daude. Eguraldi txarrarekin ez dugu aukerarik erlategia irekitzeko. Eguraldi txarra bada egun batzuetan jai egin dezakegu, baina aldiz, hamar egun jarraian eguraldi ona bada, ezin dugu jairik egin. Dena aprobe txatu beharra daukagu.

Urte sasoiaren arabera aldatzen da lan kopurua?

Jauregi. Lana urte guztian dago. Udaberrian hasiko da lan karga bat, baina udaberriko lan karga horretarako, negutik prest izan behar ditugu erlauntzak, udaberri horretan fuertegoteko. Urta-ro bakoitzak du bere lana. Esaterako, udaberrian jada erlea indartzen ari da, lorea dator, bizi berri bat dator, eta hor tokia eta laguntza eman behar dizkiogu. Udazkenerako, berri, neguan erreserbak eduki ahal

«Eztia ezagutzen da produktu bezala, baina erlezainaren lana beti ezkutuan geratu izan da»

INAXIO ARIN



izateko eztia sartzen ari dira beraiek, eta hor aprobe txatzen dugu guk eztia ateratzeko. Eta neguan, berri ere, prestatzen edo laguntzen aritu behar dugu, hurrengo udaberriera fuertegotari iritsi ahal izateko.

Eta zein sasoi da lan gehienekoa?

Jauregi. Lan karga udaberrian izaten da, udazkena bitarte. Udazkenetik aurrera erlea jada hibernatzen hasten da, eta lan askoz ere gutxiago izaten dugu eta errazagoa da, baina gaur egun dauden arazoengatik nahi-

ko gainean egon beharra daukagu. Esaterako, liztorra udazkenean sartzen da bere fuertegotean, edo *barbasis akaroa*, eta horiei aurka egiteko azkenean urte guztian lana banatu beharra daukagu, nahiz eta denboraldiko etapa fuertea udaberria izan.

Arin. Udaberrian egokitu egiten da erlea, udaberri eta udara alde horretan beraien lana egin ahal izateko.



Zein da beraien lana?

Arin. Beraiek lan asko egiten dute. 40 egun bizi dira eta egunero lana egiten dute. Erle langileak egiten duen lana, erlauntza garbitzetik hasi eta ezitia jasotzera bitartekoa izan daiteke. Hor lan ezberdinak daude: beraien etxebizitza garbitzen dute, bertan dauden erle arrautza edo kumeak zaindu egiten dituzte, erle kaxa beti bero mantentzen dute; hau da, beti beroa egon behar du. Honela, beste batzuk kanpora ateratzen dira loreak bilatzera, nektarra aurkitzera, gero ezitia eta jana eduki ahal izateko.

Loreak behar dituzte nahi eta nahiez.

Jauregi. Bai. Azkenean loreak bere ernalketa prozesua martxan jartzeko, hau da, ernaldu ahal izateko, osagarri bat eskatzen du: nektarra. Erlea nektar horren bila joaten da.

«Erlea da polinizatzailearik garrantzitsuenetako bat, eta erlerik gabe mundua galdu egingo litzateke»

INAXIO ARIN

Nektar hori hartzen duen momentuan polena hantetan orrazi bidez biltzen du, eta beste lore batera eramaten du. Polena landarearen zati arra da, lorez lore pasa beharra dagoena loreak bere fruitua eman dezan. Azkenean, adibide bat jarritz, sagarrondoak sagarra loretik emango du.

Beharrezkoak ditugu erleak.

Arin. Bai, eta asko aztertu da. Ez da oraingo kontua eta aspalditik datorren ikerketa da. Erlea da polinizatzailearik garrantzitsuenetako bat, eta erlerik gabe mundua galdu egingo litzateke.

Zuek erle beltzarekin egiten duzue lan. Zer esan nahi du horrek?

Jauregi. Erle beltza bertako erle autoktonoa da. Orain dela urte batzuk beste erle batzuk ekartzen hasi ziren, azken batean hemengo akain batzuei eta aurka egiteko beste erle arraza bat egokiagoa izango zela-koan; hau da, italiarra edo errumaniarra edo dena delakoa. Orduan hibridazio batzuk egon ziren, nahaske-ta batzuk, baina ikusi da bertako erlearen joera bertako arraza mantentzea dela, eta askoz ere egokiagoa dela hemengo klimarako. Azken batean, bizitza guztia darama hemen. Guk horretan sinisten dugunez, bere garrantzia ematen diogu erle beltzarekin lan egiteari.

Intsektu gisa, zaindu beharrekoak al dira erleak?

Arin. Euren lana egiten uzten diegu baina ondo tratatu behar dira; tokia utzi behar zaie eta espazioa eman behar zaie. Kontuan izan behar da beti euren tenperatura mantendu behar dutela. Logistika eskatzen du, eta erlea ere mimatu egin behar da. Lan asko egi-

ten dute bakarrik, baina ez badu zu mimatzen erlea, eta ez badu zu ulertzen beraiek ere nola funtzionatzen duten, azkenean beraiek ere galtzera doaz. Zaindu egin behar dira.

Eta beldurrik edo errespeturik izan behar zaio erleari?

Jauregi. Bai. Erleak azkenean bere etxea zaintzen du eta badu



ASTEKO GAIA

gure produktuetako bat izango dena, jaten ari dira, eta ondorioz guk kantitate gutxiago edukiko dugu. Orekatua izan behar du azken batean eguraldiak. Ur-taroak orain artean nahikoa ondo joaten ziren, baina jada ikusten da geroz eta diferentzia gehiago dagoela. Azkeneko elurteak beranduago iristen ote diren, euri gehiago edo gutxiago egiten duen, lehorrago... Azken batean, guztiak bere eragina izango du.

Urte bakoitza ezberdina da?

Jauregi. Aurten udaberria oso goiz etorri zen. Erlea martxan jarri zen, baina tartean hotza eta elurtea etorri zitzaizkigun. Erlea geldiarazi egin zuen, eta baita lorea ere. Lorea bere punturik onenean zegoenean elurteak hoztu eta loraldia gelditu zuen. Erlea gelditu zen, eta berriz arrankatzea kostatu zaio.

Lanerako zein garai duzue gustukoena?

Jauregi. Niri lanerako udaberria gustatzen zait. Eguraldi onarekin erlea bere lana ondo ari dela egiten ikustea gauza polita da. Eta ikustea zuk egin duzun lanarengatik erle hori fuerte dagoela, zuk egin duzun lanari esker eta erlearen laguntzarekin aurten fruituak egongo direla, edo hemen dugun paisaia hau ikustea erleetatik datorrela... horrek guztiak animoa igotzen dizu.

Arin. Udaberria eta udara. Zure lana ondo egiteagatik jasotzen dituzu sariak, eta horrek poza ematen dizu. Nik lana ondo egin eta jaso dudana uzta da. Esaterako, koadroak eztiz goraino beteta ikusten dituzunean horrek izugarrizko ilusioa ematen dizu; eztia atera

eta ordura arte egindako lan guztiak merezi izan duela sentitzen duzu.

Zer ematen dizue erlezain lanak?

Arin. Nire kasuan, tradizioz eta ezer izan gabe, naturarekiko lotura oso estua ekarri dit. Nahitaez, naturarekin asko lotzen zaitu eta prozesu bat ikusten ari zara. Gehiago erreparatzen diezu loraldiak nola doazen, beste landare batzuk nahigabe aztertu egiten

joera agresibo bat. Erle ziztada ez da batere atsegina, gu ohituak bagaude ere, guri ere mina ematen digu. Jantzirik gabe ez da komeni erlauntzaren oso ondotik ibiltzea.

Arin. Beraien funtzionamendua ulertu behar da. Eguraldi txarrarekin edo hotza egiten duenean, erlea etxe barruan egoten da, gu egoten garen moduan. Eta norbait molestatzera edo adarra jotzera baldin badoa, ziztatzen ari gingo du. Eguraldi ona dagoenean berriz, erlea bera ere zentratuago dago beste gauza batzuetara, eta ez da hainbeste gugana etortzen.

Zeruari asko begiratzen diozue?

Jauregi. Bai. Loreak loratu ahal izateko eguraldi epela behar du. Erleak lana egin ahal izateko ere bere tenperatura behar du. Hoztarekin barruan egoten da, eta azken batean sortu duten eztia,

«Erlea beltza bertako erle autoktonoa da. [...] Bere garrantzia ematen diogu erle beltzarekin lan egiteari»

MATTIN JAUREGI



dituzu. Orain artean gutxiago begiratzan nuen eta orain naturarekiko lotura sortu dit.

Jauregi. Orain artean kaletik nindoanean ez nintzen konturatzen zein zuhaitz zegoen loretan. Ez nion garrantzirik ematen. Orain, berdin du gidatzen, trenean edo paseatzen joan, loretan dauden zuhaitzak ikusten ditut, eta erleak lanean ariko direla pentsatzen dut. Erlezaintzan sartu naizenetik, bertako paisaiari askoz ere gehiago erreparatzen diot. Aberasgarria da bertako loreez gehiago jakitea.

Arin. Orain artean, erleak bazeuden, baina tarteka baten bat ikusi eta hor geratzen zen. Orain, ordea, konturatu gara eta konturatzen ari gara, erlea zeinen garrantzitsua den munduarentzat. Lan garrantzitsua dela eta egin beharrekoa dela sentitzen dugu.

Ateratzen dituzuen produktuek ere beteko zaituzte.

Jauregi. Erlezaintza oso tradizio-

«Erlezaintzan sartu naizenetik, bertako paisaiari askoz ere gehiago erreparatzen diot»

INAXIO ARIN

nala izan da, eta beti ezia izan da produktua. Aurre-
rapauso batzuk eman dira eta osasungintzarako pro-
polia bezalako beste osagai batzuk daude. Guri
gehien produktu berriak bilatzeak motibatzen gaitu;
berrikuntzak. Erlezaintzari tradizio horretatik buelta
bat emateak, horrek bai betetzen gaituela. Emaitzak
lortzen ditugunean aurrerapausoak ematen ditugu,
produktu gehiago daude eta lanean jarraitu beharra
dago.

Erlezaintzatik bizi nahi duzue?

Arin. Hori da gure helburua eta ametsa.

Jauregi. Horretan ari gara lanean.

**Zer egiten edo produzitzen du-
zue zehazki?**

Jauregi. Polinizazio zerbitzua
gure eskaintzetako bat da. Jen-
deari beraien fruitu arbolak poli-
nizatzeko eskaintzen diogun zer-
bitzua da, gero berak bere frui-
tuak jaso ahal izateko. Propolia

edo polena beste eskaintzetako bat da; polen freskoa ere ateratzen dugu; lehortu gabeak bere propietateak hobeto mantentzen dituen baita. Gainera, produktu berri batzuekin ere lanean ari gara, nektarra kasu. Orain artean atera ez den produktu bat da.

iruditzen zaigu, eta azpitik nahastu eta beste buelta bat eman nahi diogu aktiboago bihurtzeko.

Jauregi. Eziaz aparte produktu asko lortu daitezke.

Polinizazio zerbitzua jarri duzue. Zer esan nahi du horrek?



Jauregi. Erlea lorez lore ibiltzen da loreak askatzen duen nektar edo ur gozoaren bila, eta momentu horretan hartzen du landarearen zati harra eta beste landare baten zati emean uzten du. Horri esker ugaltzen dira loreak. Ugalketa hori gabe, fruituak ez lirateke behar bezala aterako edo lore horiek ez lukete beraien fruta ematerik izango. Orain arte prozesu hori naturalki egin da. Erle asko zegoen eta sagarrondo batek hamar lore bazituen hamarrak ernaltzen ziren. Jende askok zituen erleak, eta bestela ere erle asko zegoen. Erle gutxi dagoen momentutik, arazo bat dago. Hori

Eztitze prozesura iritsi gabeko ur gozo bat, alegia. Azkenean, lore batek erlea erakartzeko erabiltzen duena. Horrekin ari gara lanean; hau da, nola atera eta nola komertzializatzen aztertzen ari gara. Horrez gain, erlekumeak direla, kosmetika dela, gastronomian ere eskua sartu nahiko genuke... Kosmetikan garatua da erlezaintza, baina gastronomian eztiarekin edo erleen produktuekin gauza asko lortu daitezkeela iruditzen zaigu.

Arin. Esaterako, bikingoek edaten zuten ezti ura. Gu produzitzen hasiak gara, nahiz eta aspaldiko kontu bat izan, orain berriz ateratzea berrikuntza bat da. Gure inguruan jende askok galdetu digu zer den. Kosmetikari lotuta, ukendua eta kakaoa ere egiten ditugu. Gehienbat gauza berritzaileak egin nahi ditugu. Erlezaintza geldo dagoen sektorea dela

horrela, arazoari irtenbide bat emateko guk gure erlauntzak eramaten ditugu baratze edota fruitu zuhaitzetara.

Zer esan asiar liztorraz?

Jauregi. 2006 inguruan sartu zen Euskal Herrira; izugarrizko gaitasuna du ugaltzeko eta zabaltzeko. Espezie inbaditzaile handi bat da, eta bertako liztorra baino indartsuagoa da, erlea berriz nahi duen bezala jaten du. Jendea horri aurka egin nahian ari da; badaude ikerketak eta ari dira probak egiten, baina ikusten da ez direla behar bezala garatzen. Liztor horrek duen indarra handia da, eta ezin dugu ezer handirik egin. Hor-taz aparte, urtean zehar erlea ahultzen duten beste gaixotasun batzuk badaude. *Varroa* edo *varroasis* izeneko akain bat bada, eta asko ahultzen du eta udazken ga-

«Arazoari irtenbide bat emateko gure erlauntzak baratze edota fruitu zuhaitzetara eramaten ditugu»

MATTIN JAUREGI

raian liztorra iristen den momentuan bukatu egiten du erlearekin. Erlezain askok beraien plantilaren %60a galdu izan dute.

Zaila da beraz horri aurre egitea?

Jauregi. Liztor habiak errazago ikusten dira udazkenean, hostoak erortzen direnean, baina hostoa erori bitarteko prozesu horretan oso zaila da liztor habi bat bilatzea. 3.000 liztor badaude, egunean bakoitzak hiru erle jan ditzake. 9.000 erle jateaz aparte, erleak beldurtzen ari zaizkizu. Beldurtuta dagoelako elikaduraren bila ateratzeari uzten dio. Oso zaila da aurre egitea.

Herritarrok zerbait egin dezakegu?

Jauregi. Liztor horrek erreginak udaberrian eta udazkenean ateratzen ditu. Garai horretan, herri mailan tranpa sistema egoki bat egongo balitz, ziurrenik liztor kopurua gutxituko litzateke. Ez erabat galduarazteko, baina herri mailan atera daitezke proiektuak aurre egin ahal izateko edota erlezaintzari lagundu ahal izateko.

Egiten al da zerbait asiar liztorraren aurka?

Jauregi. Eusko Jaurlaritzaren bidez udal guztiek dute aukera herri mailan tranpa sistemak kokatu ahal izateko, baina horrek kostu ekonomikoa suposatzen du eta gainera lana eskatzen du. Udalen aldetik interesik eza dagoela iruditzen zaigu. Tolosaldean, herri txikien kasuan, diru bat horretara jartzea ez da erraza izaten. Erlezainok egin behar izaten dugu lana, gure interes propioaren alde.

Produktuak ekoitzi, prestatu eta saltzeaz ere zuek arduratzen zarete.

Arin. Produktua ekoitzi eta saltzea ere guri tokatzen zaigu. Horretarako sare sozialak erabiltzen ditugu, eta batez ere Instagram. Azoka berezietara ere joaten gara, eta gainera denda batzuetan ere saltzen dugu. Horrela saiatzeko gara gure produktuak zabaltzen.

Jauregi. Eroslea nondik dabilen adi ibili behar dugu, eta baita zer behar duen jakin ere. Erosleari bere beharrak asetzeko gainean egon behar dugu. Erlea zaintzeaz aparte saldu egin behar dugu, gure diru iturria hori baita. Bi lan dira.



Lehen sektorearen barruan, baloratzen al da erlezainok egiten duzuen lana?

Arin. Gertukoek pixka bat baloratzen dute ikusten dutelako zer lan egiten dugun, baina orokorrean ez dago hain baloratuta erlezainon lana.

Jauregi. Lehen sektorean produktu asko daude, baratzaintzan edo ganaduetatik eratorritakoak, adibidez. Baina erlezainon kasuan, ezia izan daiteke baloratu, baina esaterako, ez da esnea bezain beharrezkoa. Erlezaintza oso gutxi ikusten da. Zer gara gu lehen sektorean?

Bazterrean zaudetela sentitzen duzue?

Jauregi. Bai. Laguntza aldetik-eta bai. Eman ditugun azalpen guztiekin ikus daiteke erleak zein garrantzia duen bertako produkzioan eta naturan: sagardogintzan, kulturen, elikagaietan edo osasungintzako arloan. Hori dena baloratu ahal izateko lehen sektoreak ere lanketa bat egin beharko luke. Beharbada, uste baino garrantzitsuagoa da ofizio hau.

Arin. Bukaerako produktua hartzen da kontuan. Esnea bada beharrezko produktu bat, baina ezta edo propolia ez. Orduan, hori kontuan izanda, ez zaio behar besteko garrantzia ematen. Atzera begira jartzen baldin bazara, ordea, erle-rik gabe segur aski, behiak esnea ekoizteko jaten duen belarrik ez zukeen izango. Atzera begiratu behar da; erleak zein garrantzia duen ikusi behar da, behintzat. Bata bestea gabe ez gara ezer. Produktua lehengai bat ez denez ez zaio garrantzirik ematen.

Instituzioen aldetik zerbait egiten da?

Jauregi. Laguntzak egon badaude, Gaztenek izan daiteke adibideetako bat. Laguntzak, batik bat, lehen sektoreko gazte ekintzaileak bultzatzeko izaten dira. Laguntza horiek ganadu pisutsura bideratuta daude, eta adibidez, erlezaintzan, Gipuzkoa mailan 400 erlauntza jartzea eskatzen dute. Hemen 400 erlauntzarentzat ez dago nahikoa janari, eta ez da bideragarria. Instituzioen aldetik azterketa bat egin beharko lukete, eta baloratu UTA edo eskakizun horiek benetan errealak ote diren erlezaintzatik bizi ahal izateko.

Arin. Eskatzen dizkiguten baldintza horiek Espainiako beste zonalde batzuetatik atera dituzte. Beste toki batzuetan errazagoa da ezta ateratzea edo erlezaintzatik bizitzea. Hona ekarri dute, baina hemen

«Erlea hain beharrezkoa izanda laguntzak beharrezkoak dira»

INAXIO ARIN

eskatzen digutena ez da bideragarria. Lanketa egin beharko litzateke eta araudi hori aldatu. Azken batean, oso laguntza gutxi ditugu, eta daudenak ez dira bideragarriak guretzako.

Gipuzkoa mailan bertatik bizi denik bada? Gazterik?

Jauregi. Gipuzkoa mailan esku batekin edo birekin kontatu daitezke erlezaintzatik bizi direnak. Duen garrantzia izan eta horren jende gutxik bertatik bizi ahal izatea nahiko triste da. Gazte batzuk egon badaude, erleak afizioz dituztenak; lau, bost edo hamar erlauntzarekin. Hortik bizitzea zaila ikusten dugu. Hor gabiltza gauzak aldatu nahian, eta ea zerbait lortzen dugun.

Arin. Gazteak badaude hobby moduan ari direnak, baina honi ez baldin bazaizkio laguntzak ematen, honen jarraipen gutxi ikusten dugu. Gu topera sartu gara, baina hemen laguntzarik ez bada inor ez da hasiko erleak jartzen. Hobby moduan bai, baina erlea hain beharrezkoa izanda, laguntza horiek beharrezkoak dira.

Gazteak zarete, eta indartsu eta gogotsu ari zarete. Lortzeko helburuarekin?

Jauregi. Saiatu egingo gara behintzat. Ahal duguna egingo dugu, gure indarrak horretara jarrita ditugu, eta ea zerbait polita ateratzen den.

Arin. Mattinek esaten duen moduan, kale edo bale.



Herriarrei beraien lana erakusteko 'Egun batez erlezain' proiektua jarri dute martxan; irudian, bisitariekin. **SUTU PRODUKZIOAK**



**IMANOL LANDA
MEDRANO**
CIDETEC
FUNDAZIOKO
IKERTZAILEA



Kortozirkuitua

Kalean askotan entzuten dudan hitza da kortozirkuitua. Pertsonen jokaerari buruz hitz egiteko erabiltzen dugu. Onartzen dugu norbaitek gauzak egiteko edota erlazionatzeko modu ohiko bat duela eta, zerbaitek eraginda, bat-batean erabat aldatzen duela, normalean modu lasai batetik bortitz batera. Aldaketok, gainera, iraupen laburra dute, eta indibidua, denbora tarte baten ondoren, hasierako jarrerara itzultzen da. Ezohiko erantzunak eta erreakzioak deskribatzen ditu.

Dena den, kortozirkuitu kontzeptuak energia metatzeko sistemetan (piletan, baterietan...) dauka jatorria. *Wattarian* dagoeneko azaldu bezala, bateria bakoitzak bi elektrodo mota dauzka: anodoa eta katodoa. Elektrodo hauek erreakzio guneak dira, eta batean eta bestean gertatzen diren erreakzioak sinkronizatuak daude. Ezinezkoa da anodoan erreakzioa gertatzea katodoan erreakzio osagarria gertatu gabe, eta alderantziz. Erreakzio hauek kontrako izaera daukate: bata oxidatu egiten denean, bestea erreduzitu egiten da. Vals dantzari bikotea bezala definitu genituen: batek aurrerapausoa emateko, besteak atzerapausoa eman behar du, eta pausoz pauso sortzen du bikoteak mugimendua. Pauso horiek neurtuak izan behar dute dantzariak estropezu ez egin eta dantzan jarrai dezaten. Dantza utzi eta elektrokimikara itzulita, erreakzio horiek elektroioi eta ioi mugimendu ordenatu bat ahalbidetzen dute, eta elektroioi horiek dira gure gailu elektronikoak 'elikatzen' dituztenak.

Pila edota bateria bat hartzen baduzue, polo positibo bat (+) eta negatibo bat (-) dutela ikus dezakezue. Polo horietako bakoitzera daude konektatuta katodoak eta anodoak, hurrenez hurren. Polo horiek ez dute sekula elkar ukitzen. Bateria barruan ere 'banatzaile' izeneko mintz ez-eroaleak ipintzen dira anodo eta katodoen artean kontaktua ekiditeko. Zer dela eta? Katodoak eta anodoak (edota haietara konektatutako kanpoko poloek) elkar ukituz gero, elektroioi eta ioi mugimendu kontrolgabea gertatzen da; bat-batean elektroioi guztiak elektrodo batetik bestera mugitzen dira eta ioiak ere azkar-azkar mugitzen dira, kargak orekatzeko. Bateria energiaz erabat husten dela esan dezakegu, baina hori ez da larriena.

Material guztiek erresistentzia egiten diote elektroioiak haietan zehar barreiatzeari (Joularen legea). Erresistentzia hori dela eta, bateriaren tenperatura handitzen da (horregatik berotzen dira gailu elektronikoak lan handia eta azkarra eskatzen badiegu). Askotan, gure gailu elektronikoek tenperatura murrizteko sistemak izaten dituzte, adibidez, nire ordenagailuan piztu berri den haizagailua. Kortozirkuitua gertatzen denean, ioi eta elektroioi mugimendu bortitz horrek tenperatura ere modu bortitzean handitzea eragiten du.

Tenperatura handitu daiteke, ados. Eta beste ezer? Tenperatura handitzeak lehen aipatutako banatzailea urtzea dakar. Ondoren, tenperatura gehiago handituz gero, elektrolitoaren osagaiak, katodoak eta anodoak, erreakzionatzen hasten dira. Kea sortzen da. Erreakzioaren abiadura handitzen da. Tenperatura handitzen da. Erreakzioaren abiadura handitzen da. Sua sortzen da. Erreakzioaren abiadura handitzen da. Puntu batetik aurrera atzera eta geldiezin da! YouTube, beste edozein gairi buruz bezala, kortozirkuitu bideoz josia dago. Bartzuk bereziki ikusgarriak (eta beldurgarriak) dira. Kuxkuxeatu dezakezue zer egin behar ez den jakiteko. Goza ezazu kortozirkuiturik gabe sanjoanez, irakurle!

Gazte izateaz



**IMANOL ARTOLA
ARRETXE 'FELIX'**
SOZIOLINGUISTA ETA
GAI-JARTZAILEA

O harra: testu hau ez beza irakurri Sobietar Batasuna ezagutu zuenak, are gutxiago Frankismoa ezagutu zuenak; mina hartzeko ere!

Bakoitza bere zoroak darabil, eta azken aldian badaukat galdera-obse-sio txiki bat: oraindik gaz-

tea naiz, edo dagoeneko utzi diot gazte izateari? Azkar ustekoren batek esango dit hori norbere aldar-tearen araberrakoa dela. Baina, ea, jakin behar dudana

Gaztetetasunak daukan balio erantsiak botaka egiteko gogoia ematen dit. Gaur egun, gaizki ikusita dago gorputzari bere horretan zahartzen uztea. Direnak eta ez direnak egiten ditu jendeak gazte-itxura mantentzeko. Baina zahartzerako hil nahi al dugu bada?

George Bernard Shaw idazle irlandarrak zioen gazetetasuna denborarekin sendatzen den gaixotasuna dela, eta esaldi horren apologia da testu hau! Ez noa gazteen aurka, ez. Baina bai ajeak biharamuneko eguna baino gehiago iraun arren gazte-usteko direnen aurka.

Eta horrekin ez dut esan nahi aurten parrandarik egingo ez dudarik, aurtengo udan makina bat bazter nahastekoa naiz; baina 16 urteko batek zahar bati bezala begiratzen didanean, bada ezin esango dut ta-

«George Bernard Shaw idazle irlandarrak zioen gazetetasuna denborarekin sendatzen den gaixotasuna dela, eta esaldi horren apologia da testu hau!»

zera da: gazteak bezala jokatzeko jarrai dezaket, edo bada nik ere helduen gauzak egiten hasteko garaia?

Egia esatera, badakit jada ez naizela gaztea; baina ispiluari aurrez aurre begiratu beharrean, nahiago dut ez ikusiarena egin, «bai, felix, gaztea haiz» entzun arte. Orain hori da nahi dudana. Bai. Baina inork nahi dudana belarri ertzeraz esango balit, beste behar bat sortuko litzaidake errailetan: esan didana sinestea; eta hori ez da ahuntzaren gauerdiko eztula.

Ez gaitezen engaina: Jesukristoren adinean gaude-nok gertuago gaude 47 urteko baten kezketatik, 18 urteko batenetik baino!

bernak *txiki-parka* ematen duenik. Besterik gabe, ni naiz tokiz kanpo dagoena. Gaztea ez izateak ez du esan nahi heriotzaren hatsa sumatzen hasi naizenik; baina ez ditzadan gazteak haur bilakatu ni gazte sentitzeko!

Eta lehen galderari neronek erantzungo diot. Gaztetetasunari muga zehatz bat ezartzekotan, duela gutxi Maider Arregik kantatuarekin geratzen naiz: gaztea izateari uzten diogu «hipotekan pentsatzen/ has-ten garenean».

P.D: Ez dut sasiari su emateko asmorik, baina horixe da dagoena!

Manifestu ximurtarra



**MADDI
DORRONSORO
OLAMUSU**
ANTROPOLOGOA

Ximun izeneko katu bat daukagu etxean. Katu guztiak bezala, izaera handikoa da gure Ximun ere. Ez da etxetik ateratzen baina oso lanpetuta bizi da. Goizean balkoiko zirrikitutik herria zaintzen du eta ondoren, balkoian bertan dugun eserlekuan egiten du siesta. Arratsaldean logelako eguzkipean egiten du kuluxka luzea eta halere, lotara joateko marru egiten du 23:00k aldean. Agenda bete horretan soberan duen denboraren erdia ezkutuan pasatzen du eta gu bere bila ero moduan, beste erdian guri begira egoten da eta gu hari begira, noski.

Ez pentsa Ximun katu lasaia denik. Esna dagoenean etxeko lanak egiten aritzen da: ohea egin bitartean maiz egiten sartzen da, garbitu berri den lurrean oin markak uzten ditu, hozkailua irekitzean barrura sartzen da... Ezin gelditu egun santu guztian! Gainera, esan beharra dago etxea dekoratzeko talentu eta estrategia berezia duela: harrapatzen duen guztia lurrera bota. Betaurrekoak, intxaurrekoak edo ordenagailuaren sagua, dena pikutara!

Baina edozeren gainetik, katu soziala da Ximuntxo. Komunera zoazela? Ximun atzetik. Atea itxita dagoela? Ireki ezazu derrepentean Ximun sartze-ko. Otorduren bat? Ximunek ere bere lekua behar mahaian. «Akzioa non, Ximun han» esaten dugu etxekook.

Ximun da etxeko erregea eta dena bere erara egin behar da. Lau printzipio erraz ditu manifestu ximuntarrak: nahi duenean, nahi duelako, nahi duen arte eta nahi duenarekin. Kontrakorik eginez gero harramazka polita izango duzu ondo portatzen ikasteko. Beraz, magalera etorritakoan Jaungoiko txit gorenak aukeratu nauela sentitzen dut eta gainontzean hobe izaten da bere kasara uztea. Ezin katua ezertara behartu.

Eta horixe da Ximunengandik ikasi dudana: gauzak, orokorrean, eta harremanak, zehatzago esanda, ez direla behartu behar. Ikasbide hori idatziz jartzen saiatu naiz azken aldian, baina aurrekoan lagun batek Javier Salvago poetaren hitz batzuk bidali zizkidan eta bete-betean asmatzen duela esango nuke. Horregatik, zuekin partekatu nahi nituen hitzok, besteren batek katu kontuetatik ikasi nahi badu ere:

*«Pertsonak katuak maitatzen diren moduan maitatzea,
euren izaera eta independentziarekin,
otzantzen saiatu gabe, aldatzen saiatu gabe,
nahi duenean hurbiltzen utzi, bere zoriontasunarekin zoriontsu izanez».*

**«Eta horixe da
Ximunengandik
ikasi dudana:
gauzak,
orokorrean, eta
harremanak,
zehatzago
esanda, ez direla
behartu behar»**



ESKURATU MARIA ALTUNA ILUSTRATZAILEAK DISEINATUTAKO atariaKO MATERIALA!

*Deitu 943 65 56 95
edo pasa bulegotik!*

KATILUA

Atarikideak:

9 euro.

Atarikide ez direnak:
11 euro.

BOTILA

Atarikideak:

9 euro.

Atarikide ez direnak:
11 euro.

POLTSA

Atarikideak:

8 euro.

Atarikide ez direnak:
10 euro.

PACK-A

Atarikideak:

20 euro.

Atarikide ez direnak:
26 euro.

AGENDA

OSTIRALA

EKAINAK 17

AMASA-VILLABONA

HITZALDIA

11:45. *Don't be Dummy* bide-hezkuntza aurkeztuko diete Eusko Jaurlaritzako ordezkariak herriko gazteei. Villabonako Erniobea institutoko eta Zubimusu ikastolako 280 ikaslek parte hartuko dute. Ekitaldian zehar hiru lagunek zuzenean testigantza pertsonalak kontatuko dituzte: Jon Olano (Villabonako suhiltzailea), Ibon Kortajarena (Villabonako udaltzainburua) eta Alaitz Arbilla (bizkarrezur-muineko lesioa duen neska). Gurea antzokian.

MENDI MARTXA

16:30. Errefuxiatuen Nazioarteko Egunean, Zehar errefuxiatuekin elkarteak antolatuta, mendi martxa. Izena emateko: 688 65 48 04. Etxeondo baserritik abiatuta.

AMEZKETA

AZOKA

19:00. II. Zerbeza Ferie Amezketa. Bokadiloak bertan salgai. Larrunarri pilotalekuan.

ANOETA

ANOETAKO JAIK

10:00. Esku pilota herri txapelketa. Haurrak, finalak.

11:00. Herriko jubilatuen arteko toka txapelketa.

17:00. Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.

18:00. Loatzo Musika Eskolako kontzertua.

19:45. Play-back.

23:30. Irtera eta Bad Sound Sistem.

ERAGILEEN EGITARAU

19:00. Kaja jolasa.

01:00. Stepi Selekta.

BERASTEGI

HERRI BATZARRA

19:30. Herri batzarra udaletxeko pleno aretoan.

IBARRA

SORMENETIK GURERA

17:30. Sormenetik Gurera egitasmoaren bigarren saioa. Eñaut Elorrieta elkarriketatuko dute Ibarako gaztetxoak. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Ibarako Gaztezulok hartuko du gidaritza ostiraleko saioan, Emeterio Arrese plazan.

ELDUAIN

UDABERRIKO KULTURALDIA

18:00. Emakumeen IV. Topaketa. Emakumea eta Natura: sua, ura, itsasoa eta haizea. Doan. Izen-emateak ekainaren 15a baino lehen, kultur etxean.

TOLOSA

GAZTE TOPAGUNEA

17:00. Karaokea eta txokolatada.

TOLOSATZEN

18:00-20:00. *Kontzienteki bizi* da Tolosatzen Eskola Irekiaren denboraldi honetako leloa. Zineforuma eta eztabaida, kultur etxean. Amaia Gozategik zuzendutako *Mendian hil, hirian* filmaren proiektzioa eta haren ingurukosolasaldia eta eztabaida, adituekin. Kultur etxean.

KONTZERTUA

19:00. Ikasturte amaierako kontzertu astea. Eduardo Mokoroa musika eskola. Perkusioa eta akordeoia. Jon Esnaola konpositorearen obra berria. Topic-en.

ANTZERKIA

20:30. Antzerki tailerreko kideen emanaldia, Leidorren. *Naiz*. Alfredo Sanzolen *Sí pero no lo soy* lanaren egokitzea da.

Elena Aranbarrik idatzitako beste bi pieza ere sartu dira, beraiek eta besteak nor diren jakin nahi duten pertsonaia batzuen istorioek osatzen dutena. «Belaunaldi guztiak zeharkatzen dituen erradiografia da, egunero egiten dugunaren gainetik eta azpitik gertatzen zaiguna. Airera galderak botatzen ditugu: nor gara? Eta nor dira besteak? Gizarteak identitate bat eskatzen digu, guk besteei identitate bat eskatzen diegu, baita geure buruari ere, baina ba al dago, baina ba al dago identitate hori? Eta gainera, aldagarria da?».

OREXA

OSTIRAL KULTURALAK

22:00. Keia taldearen kontzertua, Ostatuko ganbaran.

LARUNBATA

EKAINAK 18

AMASA-VILLABONA

MENDI IRTEERA

09:30. Pagoetara mendi irteera, Ttonttorrez Ttonttor ekimenak antolatuta. 8 kilometroko ibilaldia egingo dute. Eguraldiak laguntzen badu, Aiako igerilekuetan bazkaldu eta arratsaldea han pasako dute.

KLUBAREN EGUNA

Billabona FK Eren eguna.

10:30. Penalti txapelketa irekia Errebote plazan. Realeko Mikel Loinaz eta Bixio Gorriren laguntzarekin.

12:30. Txarangarekin kalejira.

14:30. Bazkaria.

16:30. Kurtso amaierako ekitaldia.

Ondoren. Dantzaldia.

ANOETA

ANOETAKO JAIK

GAZTEEN EGUNA

11:00. Ume jolasak, Kulki taldearekin.

12:30. Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.

16:00. Herriko mus txapelketa.

18:00. Gazteen kalejira.

19:00. Sagardo dastatzea.

21:00. Herri afaria.

23:00. Gazteen dantza plazan.

Ondoren. Gozategi.

ERAGILEEN EGITARAUA

18:00. Gazteen kalejira. Txutifresh Bizi Sound Systeamekin.

23:30. Gazteen dantza.

02:00. Hofe eta Señora DJ.

BERASTEGI

BIZIKLETA LASTERKETA

10:00. Bizikleta lasterketa herrian zehar. Oriako, Andoaingo, Danenako eta Beasaingo txirrindulari eskolako benjamin, alebin eta infantilek hartuko dute parte.

BERROBI

UDABERRIKO KULTURALDIA

19:00. Sotto-voce laukotearen, hari kantarien emanaldia elizan.

IBARRA

IRTEERA

09:00. Santoñara irteera antolatu du Bizi Nahi elkarteak.

TOLOSA

BARATZ ESKOLA

09:30. Zumardiak antolatuta, Baratz eskola. 5-12 urtekoentzat (8 urtetik behera heldua beharrezkoa). Tolosako Zerkausian postua jarriko da larunbat goizean.

SANJOANAK

KUADRILLA EGUNA

10:30. Haurren entzierroa. Irteera Plaza Berritik



11:00. Tolosako Kuadrillen Egunari hasiera emango zaio Plaza Berrian. Txosnagunean hamaiketako, Bonberenea Txarangak eta GiroArte dultzaina taldearekin.

11:30. Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa, Plaza Zaharretik.

12:00. Kuadrilla eguneko txupinazoa Plaza Berrian.

14:00. Kuadrillen herri-bazkaria, Euskal Herria plazan.

15:30. Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta, XLIII. Jose Maria Anza Memoriala 1. eta 2. mailako afizio-natuentzako txirrindulari-lasterketaren irteera.

16:00. Erromeria Iratzar taldearekin, Euskal Herria plazan.

18:00. Larrain Dantza Tolosako Dultzainariak taldearekin, Euskal Herria plazan.

18:00. BatuMore Batukada feminista kalez kale ibiliko da.

19:00. Kalejira Mulambo perkusio taldearekin, Euskal Herria Plazatik Plaza Berrira.

20:00. Plaza Berrian Burrunba elektro-txaranga.

23:00. Kontzertua Plaza Berrian: Huntza eta Nikotina.

23:30. Jainekin txaranga kalez kale ibiliko da.

SARI BANAKETA

11:00. Tolosa Herria lehiaketaren

sari banaketa, Targazkik antolatuta. San Frantzisko pasealekuan, artxiboaren aurrean.

AZOKA

16:30. Ana Yurd elkarteak antolatuta, Birziklatu azoka, Berdura plazan.

PENTATLOIA

18:00. II. Emakumeen Binakako Euskal Pentatloi Saria, zezen plazan. Finala. Karmele Gisasola eta Uxue Ansorregi; Garazi Arruti eta Lucia Orbi; Nerea Arruti eta Amalur Arbelaiz. Harria (20 jasoaldi), giza proba (2 plaza), aizkora (2 egur), txingak (6 plaza) eta korrika (2 kilometro).

MUSIKA ZUZENEAN

18:00. Atila y los unos taldearen kontzertua, 3 tabernan.

19:00. DJ Mandrabera, Xare tabernan.

ZIZURKIL

MAGIA EGUNA

11:00. Magia tailerra 9 urtetik gorako neska-mutilentzat, Atxulondo kultur etxean.

18:00. Txoborro magoa, Aurrera plazan.

19:00. Eriz magoa, Joxe Arregi plazako estalpean.

20:00. Hodei magoa, herrigunean.

22:00. Magia Gala Nagusia, Atxulondo kultur etxean.

IGANDEA

EKAINAK 19

AMASA-VILLABONA

DANTZA EMANALDIA

12:00. *Irrika* Oinkari dantza eskolak eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek elkarlanean osatu duten emanaldia da, *Irrika*. Sudur gorrien musika baliatuz, koreografia desberdinak eskainiko dituzte eta nola ez, pailazoak eurak ere izango dira protagonista. Olaederra kiroldegian.

ANOETA

ANOETAKO JAIK

11:00. Anoetako Jaietako Paleta Goma Txapelketako finalak. Emakumeak senior.
Ondoren. XXIX. Pala Txapelketako finalak. Laguntzailea: Peru SL.
12:30. Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.
18:30. *Frontona* ikuskizuna, frontoian.
Ondoren. Trikidantz.
21:00. Kukuaren igoera kanpandorrera.
Ondoren. Trikidantz 22:15ak arte.

BALIARRAIN

KULTURA IBILBIDEA

17:00. *Suak harrotuz* ibilbide antzeztua. Izena emateko: 669 71 27 40 (Amets). 20 pertsonako taldeak. 3 euro, 6 urte arte doan.

BELAUNTZA

TXAPELKETA

11:00. Euskal Inertzia Kopa. Izena emateko: *Euskalkopa.com*. Eguneako aseguru: 10 euro.

BIDANIA-GOITZ

HELDUEN EGUNA

11:15. Goiazko Andra Mari parrokiari Meza Nagusia. Amaitzean, herriko dantzarien saioa.
14:00. Bazkaria, Goiazko Ostatuan.

TOLOSA

SANJOANAK

11:30. Oroimenerako kontzertua, Orkestrina Band Jazpanarekin Alondegia plazan.
12:00. Haurren Hiria Zumardiaundian: *Urpekontzi Misteriotsuak* haur ikuskizuna.
14:00. Tristan Crowleyren kontzertua eta piknika.
18:00. Traka Matraka haur ikuskizuna.
19:00. *Turistreatzen*, Trapu Zaharra taldearen kale antzerki ikuskizuna, Euskal Herria plazan.

ASTELEHENA

EKAINAK 20

BERASTEGI

ENTSEGUA

20:15. San Joan dantzetako entsegua. San Joan bezperan edo Salontzo Egunean San Joan dantzak dantatzeko entsegua egingo da.

IRURA

ODOL EMATEA

16:30. Irurako odol emaile elkarteak antolatuta. 943 00 78 84 telefono zenbakira deitu behar da hitzordua eskatzeko. Herri eskolako aretoan.

TOLOSA

IKASTAROA

09:00. E-administrazioa. *BakQ ziurtagiria*. Aurrez aurreko formazioa. 2 ordu. Euskaraz. Kz Gunean (Rondilla, 34).

LIBURU AURKEZPEN

10:30. *Mathiu Hermans A contracorriente* liburuaren aurkezpena zirkugunean, San Esteban auzoan. Bertan izango dira: Txomin Perurena, Marino Lejarreta, Peio Ruiz Cabestany, Jokin Mujika eta Benito Urraburu.

BIDEOKLIPA GRABATZEA

15:00-18:00. Euskaraldiaren bideoklipa grabatuko da Tolosan. 40 figurante behar dituzte. Hasiera, Korreo kalean grabatuko da, eta Alde Zaharreko hainbat kaletan. Ondoren, Euskal Pizkundea Plazara joko dute. Bizikletarekin azaltzeko gonbita luzatu dute. Izena emateko edo zalantzak argitzeko: 688 738 417.

ODOL EMATEA

16:30. Gipuzkoako odol emaileen elkarteak antolatuta, hileroko odol ateratzea. Kultur etxeko Topagunea gelan.

ZINEMA



ESPEJOP, ESPEJO

Larunbata eta igandea (19:00).
Tolosa, Leidor.



RED ROCKET

Larunbata (21:30) eta
astelehena (19:00).
Tolosa, Leidor.



MULAMBOREN URTEROKO HITZORDUA

Bi urteko etenaren ostean, berriro ere kalean izango da bihar Tolosako perkusio taldea. Hamahiru lagunekoa taldea batu da biharko kalejiran ateratzeko, eta ia denak, batukadan dabilta hasiera-hasieratik. Urteroko hitzordu bakarra dute baina oso maitea dute sanjoanetakoa.

Jon Miranda

Sanjoanetakoa Kuadrillen Egunean kalejira une berezia izaten da Mulambo taldeko kideentzat eta baita tolosar askorentzat ere. Bihar, 19:00etatik aurrera, Euskal Herria plazatik Plaza Berrira bitarteko bidea egin, eta honenbestez, bi urteko isiltasuna hautsiko dute. Perkusio taldeko kideek hitzordu garrantzitsu-

tzat dute biharkoa. «Estimu handitan dute eta zain-zain egoten da jendea. Bukatzen dugunean gureganasko gerturatzen dira esker ona adierazteko», esan du Iñaki Gonzalez Mulamboko kideak.

Apenas 200 metroko ibilbidea egiteko ordu eta erdi behar izaten du taldeak, ekitaldi jendetsua iza-

ten baita kalejira. «Poliki joaten gara, gelditu, tabernetan tragoa hartu eta jendeari dantzarako aukera ematen diogu», dio Oihana Sanchezek, Mulamboko beste kideetako batek. «Gu hasi ginen garaian gure lagunak etortzen ziren atzetik, baina urteek aurrera egin ahala, gazteagoak ere animatu dira. Oraindik jendea erakartzeko gai garela ikustea gauza handia da».

2000. urtean abiatu zuen bidea Mulambo perkusio taldeak eta duela bi urte, 2020an, bazuten urteurrenerako zerbaite berezia egiteko asmoa. Itxialdia etorri eta asmoak bertan behera geratu ziren ordea. Taldekideek aitortu dute «kostata» baina lortu dutela berriro ere bildu eta sanjoanetako kalejira prestatzea. Hamahiru lagun aritu dira azken asteetan entseatzen eta denak dira Mulambon hasiera xamarretik dabiltzanak. Umorez esan du Sanchezek nabari zaiela adinaren ajea: «Besoek ez digute lehen bezala erantzuten».

Eskarmentua badute, hala ere. Urteen poderioz ikasi dute erritmoak dantzarekin eta mugimenduekin laguntzen eta tentsioa arintzen. «Hasieran ideiarik ez geneukalako, tentsio batean jotzen genuen, eta askok izan genituen lesioak», gogoratu du Sanchezek. Josu Gabellanes taldeko kideak uste du batukada batean jotzeko ezinbestekoa dela erlaxatuta aritzea. Dena den, Mulamboko kideek argi dute ezinbestekoak direla entseguak gero kalejira ongi atera dadin. «Ariketa fisikoa ere bada eta entrenatu beharra dago», dio Gabellanesek. Aste Santutik sanjoanetara bitartean astean behin egiten dituzte entseguak San Esteban auzo elkartearen.

2000. urtean auzo horretan bertan sortu zen Mulambo, Sanchezek berak kontatu duenez: «Auzoan bageunden lagun batzuk Bilboko Txatanuga Bembe taldearen jarraitzaile sutsuak ginenak. Pare bat urtean San Estebango festetara gonbidatu genituen eta galdetu genien ea prest ote zeuden guri ikastaroren bat emateko. Horrelaxe hogeit bat lagun animatu ginen, gehienbat auzokoak eta Tolosakoak. Gogoan daukat instrumenturik ez geneukala eta auzo elkar-



teko zartaginak erabiltzen genituela hotsa ateratzeko. Oinarrizko erritmo batzuk ikasteko balio izan zizun eta horrekin atera ginen lehenengo aldiz kalera». Mulambo izena Soufly taldearen 2000ko *Primitive* diskoan jasotako kantu batetik hartu zuten. «Asko gustatzen zitzaigun banda hori eta pentsatu genuen izenak bazuela ukitu afrikar bat».

Formakuntzari garrantzia eman izan diote Mulambokoek. Taldeko kideetako batzuk Bilbora joan eta Txatanuga Bembe taldekoekin ikasitakoa ekartzen zuten gero Tolosara. Batukada ezberdinen topaketa eta ikastaroetan ere parte hartu izan dute eta han ezagutu izan dituzte, adibidez, Brasilgo batukada ezagunenetako maisuak. Gabellanesek beti gustuko izan du Brasilgo musika eta Mulambokoak kalean jotzen hasi eta bizpahiru urtera hasi zen haiekin jotzen. «Horrela funtzionatu izan dugu, kalean batukada ikusi, interesa agertu, eta jendea animatu izan dugu gurekin entseatzera. Probatu eta gustatu izan zaienei taldean geratu izan dira».

22 urteotako ibilbidean taldekideek kalkulatzeko 60 lagunetik gora ibili dela Mulambon. «Gehienez kalejiratan hogeit laguneko taldeak osatu izan ditugu, baina ikasi dugu dozena bat lagunekin ere saioa aurrera ateratzen», aipatu du Gabellanesek. Konpromiso maila ezberdinak onartu dituzte, eta beste edozein taldeetan bezala, tentsio uneak ere bizi izan dituztela aitortu dute. Batez ere hasierako



Leitzako kultur astean, 2005. urtean. **J. ASTIBIA**

urteak ditu gogoan Sanchezek: «Gu hasi ginen garaian ia batukadarik ez zegoen inguruan. Legazpin bazen beste talde bat, baina gainerakoan hemen inguruan ez zen besterik. Toki askotatik deitzen gintuzten eta ia astebururo izaten genuen irteeraren bat. Nagusiki Gipuzkoan, baina Bizkaian eta Nafarroan ere askotan ibili izan ginen. Hainbeste jende batetik bestera mugitzea ez da erraza eta ikusi genuen hasierako dinamika hori jaitsi egin behar genuela. Pertsona guztiok ezin genuen berdina eman eta guztion ardura ere ez da berdina taldean. Gu, azken batean, joaten gara eta besteek markatutakoa jotzen dugu. Baina piezak prestatu, besteei irakatsi, aldaketak markatu eta batukada zuzenduko duten pertsona horien ardura handiagoa da». Mulamboko hainbat kidek ikastaroak ere eskaini izan dituzte inguruko herrietan eta horri esker batukadak sortu izan dira, besteak beste, Berastegin, Asteasun edo Lasarte-Orian.

Hizkuntza klase bat

Taldea gidatzeaz, erritmoak aukeratzeaz eta moldaketak noiz jo erabakitzeaz arduratu izan dira hainbat kide Mulambon. Batukadako kideek konpartitzen duten «kodeaz» hitz egin du Gabellanesek: «Gure artean hizkuntza bat daukagu eta ados jarri behar izaten dugu keinu bakoitzarekin zein esaldi adieraziko dugun. Esaldi hori denok jakin behar dugu. «Zer moduz zaude?» galdetu dezake danbor hots batek, eta besteek erantzun egin behar izaten dugu. Batukada batek galdera-erantzunen jolas hori du. Hori ondo pres-

tatzea ez da erraza, eta beste edozein hizkuntza bezala ikasi egin behar da. Hizkuntza horrek badu baita ere sorpresatik. Askotan jendea erritmo aldaketekin harritu nahi izaten dugu, eta gertatzen da, maiz, publikoa harritu beharrean taldekideak harrapatzen dituzula ezustean [Barrez]». Eta hizkuntza ulertu ezean soluzioa ere eman du Sanchezek: isiltzea. «Noiz isildu behar duzun jakitea da batukadan aritzeko ikasi beharreko

lehenengo araua».

Gonzalezek balioa eman nahi izan dio Mulambon urte guztiotan egindako lanari: «Batukada boladan egon zen garaian ia herri guztietan sortzen ziren taldeak eta denetarik entzun zitekeen. Beste batzuk egiten zutena entzun ondoren, guk lortu dugu maila bat». Gabellanesek umorez erantzun dio: «Ondo jo izan dugu bai, baina batez ere, ondo kopiatu izan ditugu beste taldeek egindakoa [Barrez]». Brasilgo Salvador de Bahiako Ilé Aiyé taldea aipatu du. «Oso gustuko dugu. Han batukadak elkarte modukoak dira, eta auzoka antolatzen dira, alderaketa eginez, hemengo txarangen antzeko zerbait dira. Indarra erakusteko modua da auzo bakoitzarentzat. Kasu honetan Ilé Aiyékoak kultura afrikarrekoak dira eta beltza izatearen harrotasun hori daramate euren kantuetan. Guri asko gustatzen zaigu estilo hori».

Brasilgo talde horretako maisuak ere izan dituzte Euskal Herrian irakasle. Gabellanesek azaldu du *samba-reggae* estiloa dela egiten dutena, «reggaea imitatzen dute, eta Afrikako moldaketekin nahasten dute. Beltzagoa da eta motelagoa. Agian jotzen errazagoa ere bai». Estilo hori landu dute nagusiki Mulambon nahiz eta Rio de Janeiro eta inguruetan, inauterien testuinguruan jotzen den *enredo* izeneko estiloa ere landu izan duten. «Estilo hori azkar-azkarrak da».

Taldekide gehientsuenak bidaiatu izan dute inoiz Brasilera. «Batukadan aritzeko ez duzu musika gehiegi jakin behar, belarri ona baldin badaukazu eta

erritmo pixka bat, nahikoa erraza da. Brasilera bidaiatzea bezala da, astero-astero eta bertatik bertara», esan du Gabellanesek. Eta merke? Batukadako kideek aitortu dute ez dela zertan diru asko gastatu behar instrumentuetan. «Askotan Brasilera bidaiatu duten kideei eskatu izan dizkiegu handik ekartzeko».

Instrumentuak eskuratu eta gero zaindu ere egin dituzte; San Blas auzoan urteetan izan duten lokalean konpondu izan dituzte musika tresnak. Pandemia garaian tokia utzi behar izan zuten, ordea. Sanchez: «Pandemia aurretik ere ez zegoen egoera onean, baina hainbeste denboran erabili gabe egon ondoren hezetasunak erabat hartu zuen lokala eta egurrezko instrumentu guztiak zartatu zitzaizkigun. Erabili gabe utzi genuen tartean jendea ere sartu zen eta ez dakigu materiala eraman ote duten edo zer pasa den. Gauza asko falta dira». San Blaseko tokia utzi, eta aurtengo sanjoanetako kalejirarako entseguak egiteko baimena San Estebango auzo elkartearen eskatu dute Mulambokoek. «Bere sorburura itzuli da nola-bait taldea», esan du Sanchezek. «Hala ere, iruditzen zaigu behin behinekoa irtenbidea dela hau. Agian, auzo elkarteak ez du izango ikaragarritzko dinamika, baina guk erabili ahal izateko aurrez baimena eskatu behar izaten dugu. San Blasen geundenean egunero egoten zen baten bat lokalean. Orain, ordea, beti besteen menpe egon behar izaten dugu».

Oraingoz sanjoanetako Kuadrillen Eguneko kalejirarako elkartu dira eta oraingoz horrekin nahikoa dela irizten diote. «Kontziliazioa ez da erraza, gehienok familia dugu eta entsegutara etortzeak konpromisoa eskatzen du. Elkartu gara, biharko hori egingo dugu eta gero ikusiko dugu zer gogo dagoen», dio Sanchezek. Mulamboren 20. urteurrenaren harira zituzten asmoak bertan behera geratu ziren itxialdiarekin, baina, hala ere, orduan abiatutako bidea jarraitzeko aukera zabalik dagoela esan du Gabellanesek: «Kawadeni taldearekin elkarlanean hasita geunden. Guk lan-

tzen dugun estilo brasildarraren eta haiek egiten duten afrikarraren arteko fusio moduko bat probatu nahi genuen. Ikusiko dugu asmo horiek gauzatzeko gai garen». Sanchezek hitz eman du, 25. urteurrenaren iristen badira, orduan bai, ospakizun berezia egingo dutela: «Atzetik tropa ederra dator eta polita izango litzateke hurrengo belaunaldiei lekukoa ematea, Mulambo txiki bat osatzea». Ondotik, Gonzalez jardun zaio: «Batukadara gaztetxoak batu, baina gu erretiratu gabe».

Gabellanesek buruan dauzka ideia gehiago ere: «Egiten dugun honen gainean kantatzen hasiko nintzateke ni, eta ahal balitz, euskaraz gainera». Mulamboren etorkizuneko erronkak direla dio, oraindik landu ez dituzten alde horiei heldu nahiko liekete, kantuari eta dantzari. «Egia esan, ez dugu koreografia handirik landu izan, kontu horiek beste jende baten-tzat utzi izan ditugu. Guk ondo jotzeari eman diogu garrantzia gehiago», aipatu du Sanchezek.

Biharko hitzorduak eman die aitzakia berriro ere elkartzeko. Sei bat piezako erreperitorioa prestatu dute eta ondo pasatzera doaz. Oraindik erabakitzeke dute Plaza Berrirako bidea, Rondilla kaletik edo Alde Zaharreko kaleetatik egingo duten. Onena, bihar 19:00ak inguruan Euskal Herria plazara gerturatzea izango da eta Mulamboren erritmoen esku uztea norberaren burua.



2010. urteko Zizurkilgo kuadrillen bazkaria. **E. EZEIZA**



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA.

Bero zakarra.

Goizean berriz ere erdi eta goi-mailako hodei batzuk agertuko dira, baina giro eguzkitsua izango da. Arratsaldean zehar bero-hodeiak garatuko dira, baina ez du ia apenas ekaitzik lehertuko. Hai-zeak hego-ekialdetik joko du egun osoan eta tenperaturak oso balio altuetan kokatuko dira berriz ere, 37-39 graduan joaz goia.

LARUNBATA

Goizean erdi eta goi-mailako hodei batzuk agertuko badira ere, zeruan urdina nagusituko da eta eguraldi eguzkitsua izango dugu. Arratsaldean zehar bero-hodeiak garatzen joango dira eta arratsalde erditik aurrera eta gau partean ekaitzen bat edo beste izango da, nahiz eta, ez diren ugariak izango. Goizean haizea hegotik harro ibiliko da, arratsaldean aldiz ipar-mendebaldera egingo du, aldaketa unean bolada gogorak utziz. Tenperaturak 38-41 graduan kokatuko dira, baina arratsaldean nabarmen freskatuko du.

IGANDEA

Askos giro freskoagoa. Goizean zeru oskarbiarekin giro eguzkitsuz gozatu ahal da. Arratsaldean, ezegonkortasuna medio, bero-hodeiak garatuko dira eta arratsalde erditik aurrera ekaitzen bat edo beste izango da, nahiz eta, ez den espero ekaitz gogorrik eta ugaririk izaterik. Haizea arratsalde erdira arte ipar, ipar-ekialdetik ahul ibiliko da; arratsalde erditik aurrera ipar-mendebaldera egin eta zakartu egingo da. Tenperatura 26-28 graduan joaz goia.

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€

45€

51€

Atarikideek

12€

33€

38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

EKAINAK 17, OSTIRALA

TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.

Korreo, 20.

943 67 60 13.

EKAINAK 18, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Iñaki Olarreaga Aranburu.

Korreo, 2.

943 67 01 28.

EKAINAK 19, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Lourdes Azpiroz Galarza.
Larramendi, 6. 943 67 51 18.

EKAINAK 20, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa. Oscar Etxebeste Etxarri.
Gernikako Arbolaren lorategiak, 3.
943 65 10 40.

EGUNERO

GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:
TOLOSA. LEIRE ANDRES MORANT.
ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.




**CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.**



12 ETXEBIZITZA TASATU

BERASTEGI – Ategi II

175.476€-tik hasita



- 2 logela + 2 bainugela
- 62/79m² erabilgarri barruan
- Terraza mendira begira
- Garaje itxia barne
- A kalifikazio energetikoa



Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20150 BILLABONA



www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484



50€
ARTEKO DESKONTUA ZURE
MÓ BETAURREKO GRADUATUETAN*

ORAIN, DENA EDUKITZEA ERRAZAGOA DA:
ATERA ARGAZKI BAT IRAGARKI HONI, ZATOZ GURE OPTIKARA ETA LORTU

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

www.multiópticas.com   

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen